



Ikerketak

Egiaztatze-probak: zuzentasunaren azterketa 3. mailako idazlanetan

*Mikel Gartziarena San Policarpo**

Erroreen gaia ez da berria aldizkari honetan. 1998an, esaterako, “Erroreak helduen euskalduntzearen azken urratsetan” idatzi zuen Pello Esnalek garai hartako ZUTABEn. Azken zenbakietara erreparatuta, berriz, Ribas eta D’Aquinok erreoren zuzenketari buruzko ekarpena argitaratu zen HIZPIDEren 84.ean; erreoren analisia HABEren 2. mailako azterketetan izan zuen gai Naroa Perezek zenbaki berean. Ikuspegia osatzera dator oraingo artikulua, egiaztatze-deialdietako 3. mailako azterketetan zuzentasuna ikertu baitu Mikel Gartziarenak.

0. Sarrera

Izenburuak berak dakarkigu ikerketaren helburu nagusia: 3. mailako idazlanen zuzentasun-maila aztertzea. Ez pentsa, ordea, lanaren funtsa ebaluazioan oinarrituko denik, edota, zuzenketa-estiloan erdiratuko garenik. Hizpide izango ditugu helduek 3. mailako euskararen gaitasun-probetan egiten dituzten akatsak, zuzentasunarenak, alegia. Hala, lortutako puntuazioaren araberrako sailkatze-lana egingo dugu, begi-bistan utziz heldu guztiek dituzten erroerrik ohikoena zein puntuazio-arteak kontuan izanda aurkitzen diren akatsik sustraituenak; era berean, interesgune izango ditugu hizkuntzen arteko eraginak, fenomeno linguistikoak eta errore bereizgarrienak.

* mikelgartziarena@gmail.com

Amaieran, behin akatsen izaera eta erroa identifikaturik, saiatuko gara puntuazioaren arabera erroen sailkapen-gida diseinatzen eta proposamen didaktikoa luzatzen.

Guztiok ezagutzen ditugu euskara-maila neurtzeko probak, hala nola EGA edota HABEren hirugarren mailako azterketa. Eguneroko ogia dugu zuzentasunaren afera, eta, horren garrantziaz oharturik, ikergai-arloa. Jomuga hori izaki, ezkondu beharrean gaude aurrez aipatutako alde praktikoa zuzentasunaren aterkipean dauden ideia nahiz teoriekin.

1. Marko teorikora hurbiltzen

Ikerketaren bizkarrezurra osatzearren, honako hiru hauek izan dira teoria-iturri nagusiak (Gartziarena, 2015):

- 1) Erroren esanahian sakondu da, hainbat ikertzailearen ezagutza erkatu, testuinguru historikoan ipiniko eta azterketa-analisiarekin lotu. Era berean, kontuan hartu dira horien ingurumarian egon diren ikuspegi ezberdinak eta adiera anitzak. Modu bertsuan identifikatu dira errore-sorburuan dauden ikuspuntuak eta teoriak.
- 2) Hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, amaigabea da akatsen zerrenda, baita irakasleek eta ikasleek horien inguruan dituzten ikuspegiak, jarrerak zein erantzunak ere. Hori dela-eta, erroren esangurari erreparatuz gero, historian zehar zenbait ekarpen metodologiko sortu dira; hala nola gramatika-itzulpena, metodo estrukturala edo audiolinguala, konduktista, kognoszitiboa eta proiektuetan oinarritutakoa. Horietako bakoitzaren inguruan, xehetasun batzuk jaso dira, bai errorearen ikuspegitik, bai metodologiaren aldetik.
- 3) Aurrez aipatutako teoria pedagogikoa eta psikologikoa euskararen ikas-irakaskuntzarekin biribiltzea izaki helburua, hizkuntzaren hastapena zehaztu da, eta horren bilakaera-prozesua xehatu normalkuntza bidean.

2. Ikerketa

2.1. Ikerketa-galderak

- 1) Posible al da 3. mailako idazlanetan egindako akatsak mailakatzeari zuzentasunaren, garrantziaren, maiztasunaren eta proban lortutako puntuazioaren arabera?
- 2) Ba al dago errore-patroi esanguratsurik? Ba al dago hori puntuazioaren arabera mailakatzerik?
- 3) Posible litzateke 132 azterketa-lagin arakatu ostean zuzentzaileari azterketa idatziak zuzentzeko gidarik sortzea? Hau da, zuzentze-lanerako orientagarri izango den material baliagarria sortzea?

2.2. Ikerketa- metodologia

2.1.1. Azterketa- lagina

Honako ikerketa-lanean aztergai izango ditugu HABEren 3. mailako 132 idazlan, 2013 eta 2014 urteetakoak, ohiko egiaztatze-deialdietakoak. Jakina da horietan bost irizpide hartzen direla kontuan, hala nola egokitasuna, kohesioa, koherentzia, aberastasuna eta zuzentasuna. Horietatik guztietatik, azkena ikertu dugu, eta azterketan erdietsitako puntuazioaren araberako antolatutako zuzenketa, honakoa izanik laginen sailkatzea:

1. taula:

Kalifikazioa	2013ko		2014ko		Azterketa- kopurua orotara
	lehena	bigarrena	lehena	bigarrena	
0-5	2	2	2	2	8
6-8	4	4	4	4	16
9-11	4	4	4	4	16
12-14	4	4	4	4	16
15	5	5	5	5	20
16-18	4	4	4	4	16
19-21	4	4	4	4	16
22-24	4	4	4	4	16
25-30	2	2	2	2	8

2.2.2. Datu-bilketa- koak, prozedurakoak eta erabilitako bali- bideak

Lehenik eta behin, idazlanaren transkribapenari ekin diogu; aurretiaz lagin errelok PDF formatuan jaso ditugu, deialdiaren eta lortutako puntuazioaren araberako mailakatuak. Hortaz, ordenagailura pasa genituen, zuzenketa arinagoa izateko eta, bide batez, errore-kodetzean oztoporik ez izateko. Erroreak errore eta sistemak sistema, hamaika konbinazio dago kodetzerrenda egitean; halere, EGA eta HABE azterketetarako erabiltzen direnak geure egin ditugu, gure egitekora egokiro moldatuko delakoan. Era berean, aberasgarria izan da gure proposamena zenbait gramatika-libururen kontsultatzea.

Jarraian, kodetze-zerrenda eskuartean, paper eta boligrafoz ekin diogu zuzenketari; hori bukatutakoan, ordenagailuan transkribatutakoetara gehitu ditugu oharrak eta zuzenketak; azkenik, zuzendutakoa berrikusi dugu, oharkabean pasatutakoak papereratzeko.

Ostean, idazlanak orraztuta eta “.txt” luzapenez gordeak, *AntConc* programa erabili dugu, bildutako corpusa behar bezala analizatzeko; gailu honekin gai izan gara honakoak behatzeko: hitz-maiztasuna, esamolderik ohikoenak, akatsik erro-tuenak, mailakako errore sistematikoak eta konkordantziak, besteak beste.

3. Emaitzak

3.1. Akatsen zerrenda

2. taula:

Multzokako akats-kopurua			
Kalifikazio-multzoa	Idazlan-kopurua	Akats-kopurua	Akats-kopuru erlatiboa
0-14	66	1275	19'318
15	20	286	14'3
16-30	66	579	8'77

3. taula:

Ranking-a:	Akatsen izaera, puntuazioaren arabera			(0-14)	(15)	(16-30)	
1	Ortografikoak			Letra larria eta xehea	%24'71	%34'21	%45'6
	(0-14)	(15)	(16-30)	"X", "s" eta "z" nahastu	%20'74	%18'42	%8'3
	%27'61	%26'57	%33'33	Gaizki jositakoak, nahastutakoak	%14'49	%18'42	%12'95
				"H"-aren erabilera okerra	%13'06	%3'94	%4'66
				Letrak gehitu hitzari	%9'65	%6'57	%11'4
				Behar ez denean hitzak bananduta edo batuta	%8'23	%10'52	%8'8
				Letrak kendu hitzari	%7'67	%10'52	%6'21
				"F" eta "p" nahastu	%0'85	-	-
				"P" eta "b" nahastu	%0'28	-	%1'04
				"T" eta "d" nahastu	%0'28	-	-
			"K" eta "g" nahastu	-	-	%1'04	
2	Deklinabidea			Ergatiboarenak	%34'4	%22'03	%35
	(0-14)	(15)	(16-30)	Mugagabearenak	%22'1	%25'43	%25
	%21'65	%20'63	%17'27	Bestelakoak	%43'5	%52'54	%40
3	Egiturazkoak			Esaldi nahasiak; interferentziak	%34'3	%31'48	%31'91
	(0-14)	(15)	(16-30)	Sasi-adiskideak; beste hizkuntzen eragina	%24'68	%14'82	%28'72
	%18'74	%18'88	%16'23	Komuntadura	%20'08	%27'78	%18'09
				Lexikalizazioa	%8'79	%7'41	%8'51
				"Ere"-ren erabilera okerra	%8'79	%5'55	%8'51
				Elkarkariak eta bihurkariak	%2'09	%3'7	-
				Galdera erregistro-marka	%0'83	7'41	%4'26
				Errepikatutako hitzak	%0'41	%1'85	-
4	Puntuazioa			Koma subjektuaren eta aditzaren artean	%40'32	%38'89	%35'63
	(0-14)	(15)	(16-30)	Puntuazio-marka ahaztu	%22'48	%16'67	%16'09
	%10'12	12'59	%15'03	Marratxoaren erabilera	%17'83	%19'44	%22'99
				Puntuazioa gaizki erabilia	%17'05	%19'44	%22'99
				Kakotxak gaizki erabiliak	%1'55	%2'78	%2'3
				Gidoien erabilera	%0'77	%2'78	-

5	Aditzak			Denboran, aspektuan, moduan edota eraketan erroreak	%65'83	%66'67	%62'16
	(0-14)	(15)	(16-30)	Paradigmen nahasketak	%30	%8'33	%27'03
	%9'41	%8'39	%2'93	Ahaztu, soberan edo elipsia gaizki erabilia	%4'17	%25	%10'81
6	Mendeko perpausak eta juntaturazkoak			Konpletiboak	%24'7	%15'38	%12'9
	(0-14)	(15)	(16-30)	Nominalizazioak	%14'12	-	%22'58
	%6'67	%4'55	%5'35	Erlatibozkoak	%11'76	%23'08	%19'36
				Konparaziozkoak	%11'76	%15'38	%12'9
				Zehar-galderak	%10'59	-	-
				Baldintzakoak	%8'24	%15'38	%12'9
				Alborakuntzakoak	%5'88	-	%12'9
				Lokailu okerrak, ezegokiak	%4'7	-	%3'23
				Aurkaritzakoak	%3'54	7'69	-
				Kontzesiboak	%2'35	-	-
				Hautakariak	%1'18	7'69	%3'23
				Helburuzkoa	%1'18	-	-
	7	Determinatzaileak, izenak eta adjektiboak			Artikuluak	%60'82	%62'5
(0-14)		(15)	(16-30)	Erakusleak	%27'02	%25	%21'63
%5'8		%8'39	%6'39	Leku-izenak	%5'4	%12'5	%5'4
			Izenak gaizki erabiliak edo sortze okerra	%4'05	-	-	
			Adjektiboak	%2'71	-	%2'7	

3.2. Akatsik errotuenen zerrenda

4. taula:

Akatsik errotuenak						
(0-14)			(15)		(16-30)	
Zkia	Izaera	Maiztasuna	Izaera	Maiztasuna	Izaera	Maiztasuna
1	Deklinabidea	120	Deklinabidea	31	Hitz larriak eta xeheak	88
2	Ergatiboa	95	Hitz larriak eta xeheak	26	Deklinabidea	40
3	Hitz larriak eta xeheak	87	Esaldi nahasiak	17	Ergatiboa	35
4	Esaldi nahasiak	82	Denboran, aspektuan, moduan edota eraketan erroreak	16	Koma subjektuaren eta aditzaren artean	31
5	Denboran, aspektuan, moduan edota eraketan erroreak	79	Artikuluarekin arazoak	15	Esaldi nahasiak	30
6	“S”, “x” eta “z”-ren bereizketa	73	Komuntadura	15	Sasi-adiskideak eta kalkoak	27
7	Mugagabea	61	Mugagabea	15	Artikuluarekin arazoak	26
8	Sasi-adiskideak eta kalkoak	59	Koma subjektuaren eta aditzaren artean	14	Mugagabea	25
9	Koma subjektuaren eta aditzaren artean	52	Gaizki jositako hitzak	14	Gaizki jositako hitzak	25
10	Gaizki jositako hitzak	51	Ergatiboa	13	Denboran, aspektuan, moduan edota eraketan erroreak	23
11	Komuntadura	48	“S”, “x” eta “z”-ren bereizketa	13	Letrak gehitu hitzari	22
12	“H”-arekin arazoak	46	Hitzari letrak kendu	8	Marratxoaren erabilera	20
13	Artikuluarekin arazoak	45	Behar ez denean hitzak bananduta edo batuta	8	Puntuazioa gaizki erabilia	20
14	Aditz-paradigmak nahastea	36	Sasi-adiskideak eta kalkoak	8	Komuntadura	17
15	Letrak gehitu hitzari	34	Marratxoaren erabilera	7	Behar ez denean hitzak bananduta edo batuta	17

3.3. Multzokako
esamolderik
ohikoenak

5. taula:

(0-14)			(15)		(16-30)	
Zki.	Hitza	Maiztasuna	Hitza	Maiztasuna	Hitza	Maiztasuna
1	Eta	749	Eta	273	Eta	775
2	Ez	364	Ez	125	Da	347
3	Da	332	Da	117	Ez	327
4	Gure	157	Ere	86	Gure	218
5	Ere	146	Gure	67	Ere	190
6	Behar	145	Behar	64	Izan	145
7	Dira	140	Izan	63	Bat	144
8	Bat	136	Dira	51	Behar	139
9	Hau	121	Hau	51	Hori	134
10	Dugu	120	Bat	50	Dugu	130
11	Izan	116	Dugu	50	Dela	111
12	Dela	113	Beste	41	Dira	107
13	Baina	110	Dela	39	Egin	93
14	Egin	103	Zaintza	37	Du	87
15	Beste	90	Hori	36	Baina	84

6. taula:

Bi hitzeko esamolderik errepikatuenak:						
(0-14)			(15)		(16-30)	
Zki.	Esamoldea	Maiztasuna	Esamoldea	Maiztasuna	Esamoldea	Maiztasuna
1	Ez da	47	Ez da	16	Izan ere	39
2	Gaur egun	39	Gaur egun	14	Ez da	35
3	Hau da	39	Izan ere	14	Dela eta	33
4	Food x	33	Behar dugu	13	Da eta	32
5	Da eta	30	Da eta	13	Food x	31
6	Zaintza partekatua	28	Hau da	12	Zaintza partekatua	29
7	Dela eta	27	Nahiz eta	12	Gaur egun	28
8	Barraskiloak martxan	24	Zaintza partekatua	12	Hau da	24
9	Eta ez	24	Gero eta	11	Eta gure	22
10	Egin behar	23	Hala ere	11	Alde batetik	19
11	Behar dugu	22	Dela eta	10	Behar dugu	19
12	Izan ere	21	Ez dugu	9	Slow Food	19
13	Alde batetik	18	Alde batetik	8	Barraskiloak martxan	18
14	Gero eta	18	Barraskiloak martxan	8	Hori dela	18
15	Euskal Herriko	17	Batez ere	8	Kale gorrian	17

3.4. Akatsen sailkapena eta zerrenda

3.4.1. Ortografikoak

Letra larria eta xehea:

- “Amaitzeko, eta *gabonak* laster iritsiko direnez, gogorarazi nahi dizugu *gabonetan* urtero *gabonetako* kanpaiak daudela saltoki guztietan.”
- “Badira 5 egun *Udalaren* asmo hau ezagutu genuela eta ez gaudede ados horrekin.”
- “*berri* hau ikaragarria da banantze prozesuan dauden pertsonentzat, gizonezkoa bazara, batez ere.”

“X”, “s” eta “z” nahastu:

- “Gure *arbazoak* bezala biluzik bizi zirela.”
- “janariari denbora pixka bat eman behar diogu digestio ona *eutukitxeko*.”
- “Beste aldetik, ez al da naturala hondartzan *bilutsik* ibiltzeak?”

Gaizki jositakoak, nahastutakoak:

- “Honekin guztiarekin hau esan nahi dut, horain gauzak lehen *bezela* jartzen ari direla.”
- “Apurka *aurrerapausu* hau egitea lortu izan dugu baina oraindik ez da nahikoa izan.”
- “Ez dizuet beste ezer *gehio* eskatzen.”

“H”-aren erabilera okerra:

- “Eta alde daudenak berriz, hori dela modu bakarra *haurre* egiteko.”
- “...gaztea *nahiz* eta *horaindik* etxea ordaitzeko urte asko gelditzen zaizkit...”.
- “Nire ikuspuntutik, zaintza partekatua arazo hauek *sahiesteko* balio duen tresna izan daiteke.”

Letrak gehitu hitzari:

- “eta haien onurak babestea denon ardura bat dela, eta ez bakarrik *udalentxearena*.”
- “Herria kostaldean egotearen *abaintaila* hondartza duela da.”
- “Aipatzekoa da enpresa *haundi* zein txikiak tratu gehienak bazkari edo afari batean egin dituztela.”

Behar ez denean hitzak bananduta edo batuta:

- “Gainera, elikadura kulturaren ikusgai da, eta euskal kultura munduan zehar ezaguna izatea nahi badugu, gure sukaldarietan dugu aukera *ezinhobea*.”

- “Orain dela bi urte gutxi *gora behera* tomatearen zaporeari buzur hitz egiten hasi ginen etxean.”
- “Zalantzarik gabe, herri osoaren laguntza ere jaso dugu manifestazio, hitzaldi, *lan guneak*, etab. sortuz.”

Letrak kendu hitzari:

- “Lehenik, familia asko *kika-larrian* geratzen dira etxebizitza barik.”
- “Erakunde pribatuei eta herritarrei aldiz, galtzen ez diren elikagaiak eskatu nahi dizkiegu bereziki, adibidez, latak, lekaleak, *gaie-tak*, eta antzekoak.”
- “Eta desoreka hori guztiz larria da emakumeontzat, argi-argi geratzen baita gaur egungo kolektiborik babesgabeenak eta *zau-garrienak* garela.”

“F” eta “p” nahastu:

- “Batzuentzat *alperrikakoa* da, eta beste batzuentzat baliogarria.”
- “...gehienbat jaioberrientzako janariak eta produktuak, potitotak, *pardelak* eta hauts-esnea besteak beste.”

“P” eta “b” nahastu:

- “Argi utzi nahi dut aldaketa ezin hobea izan dela eta *denpora-ren* poderioz, ikusi ahal izango dugula sortuko diren etekinak.”
- “Guztiok jarri genuelako behin geure esfortzua, indarra eta dirua auzoa hobetzeko, eta horri ezin da bertan behera utzi *pode-retsuek* nahi dutelako.”

“T” eta “d” nahastu:

- “Horretarako nire *eskarmenduaz* baliatuko naiz.”

“K” eta “g” nahastu:

- “Gomendio guzti hauek jarraitu izan ditugu beti, eta ondorio jarraituak gainera, *ohargabeen*.”
- “Elikadura, lehen aipatu dudana bezala herri eta kultura baten *erakuskarria* dela eta ohitura horiek galtzea, ...”

3.4.2. Deklinabidea

Ergatiboarenak:

- “Haietaz gain, funtzionario eta epaile *askok* diskonforme agertu dira egoera honen aurrean.”
- “izan ere, *gurasoak* eskubide berberak ditugu.”
- “Orain, aldiz, gero eta bikote *gehiago* amaiera ematen diote beraien artean duten harremanari.”

Mugagabearenak:

- “Akaso herriak ez du beste *aukera*, beste *hondartza*?”
- “Bestalde, herriko festetan aktiboki parte hartzen dugu eta *hainbat ekitaldi ezberdinak* antolatzen ditugu;”
- “...biztanleriaren %90-a baino gehiagokoa, eta, kopuru honetatik, erdia baino gehiago umeak dira.”

Bestelakoak:

- “Lanbide *bakoitzarako* soldata jakin bat, bai emakume baita *gizonentzako* ere.”
- “Lehenik eta behin, krisialdi ekonomiko batean murgilduta ego-teaz gain, jendeak oraindik etxeak *erostean* garrantzia handia emoten dio.”
- “...emakumeak nahiz gizonak ordu kopuru batez familiarekin *egote* ahalmena izatea, soldatak ukitu gabe, noski!”

3.4.3. Egiturazkoak

Esaldi nahasiak; interferentziak:

- “Hori dela eta, eta *krisi egoeran gadula kontuan zaude*, agintariek, gohimailekoek, egindako aldaketekin hiritarren bizitza gehiago baldintzatzen da.”
- “Zoritxarrez, *orain lan egiten ari den momentua da*, eta *hezkuntza honek emaitzak* oraindik ez ditugu somatzen, baina urteak pasa ahala gero eta pentsakera irekiagoa dela uste dut.
- “A! eta hori bai, norbait gure *ikastaroarekin harremanetan jarri nahi izanez gero*, sar daiteke webgune honetan: www.Auskalolonikastaroeuskara.com.”

Sasi-adiskideak; beste hizkuntzen eragina:

- “Nik ikusten dudan *perjuizioa* bakarra eskubide hori kentzea da.”
- “Uste dut, lantzean behin arnasa hartu behar dugula eta gauza politak edo baikorrak entzun, gure *autoestima* igotzeko.”
- “Azken hauen *diskonformidadea* legea dagoen bezala zinezkoa ez delaren izpilu izan liteke.”

Komunztadura:

- “Bestalde, guk, *gure generazioa*, ahal dugun bezain ongien eraman behar dugu egoera hau, ezberdintasun egoera hau.”
- “Eta hainbeste abantaila dituzte plater horiek, ezen ez *baikenioke* inoiz jateari utzi beharko.”

- “Ezin dezakegu ahaztu, honek auzi ekonomiko *galanta* dakartzala,”

Lexikalizazioa:

- “Halaber, gure artean beldur *asko* dago, kale gorrian ikus dezakegulako gure burua.”
- “Orain arte *semeen* zaintza ia beti amen eskuz zegoen...”
- “*Ume zaindari* bat kontratatu daiteke baina horrek dirua suposatzen du.”

“Ere”-ren erabilera okerra:

- “Gizartea, oro har, ez da egoera honen aurrean ixilik gelditu eta zorionez egiten ari diren protesta guztiak, halako emaitza onak ematen ari direla *badirudi*.”
- “Jende aurrean ez dugu lotsarik biluzik egoteko eta nahiko bagenu herritik *baita* arroparik gabe joango ginateke.”
- Ezin dezakegu kontuan hartu lanpostuaren soldata ordaintzerakoan, ile laburra ala luzea daukan *ezta* zuria ala beltzarana izan, *ezta* emakumea ala gizona izan.

Elkarkariak eta bihurkariak:

- “Ekin diezaiogu gure giza eskubideen alde! *Borroka dezagun elkar!*”
- “Oso ondo moldatzen gara hitz egiten eta *elkarri ulertzen saiatzen gara*, batez ere, euskaldun berriekin, batzuetan asko kostatzen baitzaie berba egitea.”
- “Baina, ez dugu inoiz ere ahaztu behar, Bilbon hildako gizon hura, etxea galtzen zuela ikusi zuenean, *bere burua beste egin* zuelarik.”

Galdera erregistro-marka:

- “Inoiz ikusi *ahal* da gizonezko batek bizitza pribatua ala lana bateratzeko neurriak eginarazten dituzten lanpostuetan?”
- “*Baina emakumeentzat egoera hobeto dago? Benetan, berdintasuna errealitatea da?*”
- “*Baina, honen errua da ume askok duten loditasuna?*”

Errepikatutako hitzak:

- “,eta ez dut aurkitzen diskriminazioaren eragile bat bakarra, *baizik eta baizik eta* bat baino askoz gehiago daudela uste dut.”
- “Hori-dela-eta, nire eskarmentuan oinarritutako irtenbide edo proposamen batzuk *ematen mahaigaineratzen* ausartuko naiz.”

3.4.4. Puntuazioa Koma subjektuaren eta aditzaren artean:

- “*Hauek*, egoera txarrean dagoen jendearekin hitz egin eta zeukaten klausulak aldatu beharko ziren.”
- “Edozein kasutan ere, gauza guztiakin gertatzen den bezala, *zaintza partekatuak*, alde onak zein txarrak ditu.”

Puntuazio-marka ahaztu:

- “Haurraren amak ez zuen telefonoa *erantzuten beraz* aitak polizarengana jo zuen laguntza eske.”
- “Eta azkenik, atzean bidaltzen dut beste horri bat, herritar guztien izena eta bere nan-ekin, akordioaren *sinadurarekin Nire* eta herritarron eskaria,…”
- “*Orain arte azaldu dudan jarduera edo ekintza guztiak dohainik izan dira udalarentzat guk geuk antolatzeko aukera erabaki dugunez udalak ez du dirurik gastatu behar izan.*”

Marratxoaren erabilera:

- “Gure *gaur-egungo* gizarteaz hitzegitear burura datorkit erdi aroko egoera.”
- “Lehenengo eta behin, *hau-dela-eta*, etxebizitza asko geratzen dira utzik eta gobernuak ez daki zer egin beraiekin.”
- “Gure gaztetxeak gazte asko erakartzen ditu, gehienak *merkataritza-gunez* aspertuta daudelako.”

Puntuazioa gaizki erabilia:

- “Non dago kideasuna?. Azken finean…”
- “Horren ondorioz, gero eta jende gehiago dator elikagaien bankura, *eta*, gu lanez gainezka gabiltza.”
- “Asko dira diskriminazioaren eragileak. Multzo honetan, batzuk *aipatzearren; sistema* ekonomikoa, sistema kapitalistan oinarritua; …”

Kakotzak gaizki erabiliak:

- “Eta horretarako, *Berriak* eman zuen datu interesgarri bat ma-haigaineratuko dut:”
- “Ikusiak ikusi, nahikoa da “ *Aristotelesen baieztapena benetan baztertze*ko eta berdintasun erreala lortzeko,…”

Gidoien erabilera:

- “Egoera honen ondorioz, Grezian duela bi egun jakin zen moduan, politikariek diru publikoa haien poltxikoetan gordetzeko

ohitura hartu dute -*Atenasko udalaren datuen arabera, biztanleriaren %12ari bakarrik ordainduko zaio soldataren diru kopuru osoa.*”

- “Hortaz, bankura jo eta mailegua *txikia ez zena*- eskatu genuen gustatu zitzaigun pisua- 40 m2 zituena, benetan ñimiñoa- erosteko prest.”

3.4.5. Aditzak

Denboran, aspektuan, moduan edota eraketan erroreak:

- “Azkenaldi honetan gero eta kaleratze gehiago ikus *ditzazkegu.*”

Erosteko eta saltzeko gura hori gutxi *iraunduko* zuen.

- “Gazteak, ikasteko bi iturri desberdin edukiko *lituzkelako* eta ondorioz, aberastasun gehiago izango.”

Paradigmen nahasketak:

- “Bigarrena; osasunaren aldetik, oso komenigarria da eguzki bainuak hartzea eta *esaten ari dudana*, edozein medikuak esan diezakezu.”
- “Bestalde, ezin zaigu ahaztu aita edo ama izatea bizitza osorako dela, eta ez soilik *bikotearekin bizi gaudenean.*”
- “*Batek pentsa daiteke* hau lelokeria hutsa baino ez dela, baina horrela jarraitzen badugu, beste herrialde bihurtuko gara.”

Ahaztu, soberan edo elipsia gaizki erabilia:

- “*Gobernua eta bankuetxeek laguntza gehiago eskaini*, etxeak ez galtzeko eta galtzekotan pertsonak kale gorrian geratzeko aukera ez izateko neurriak ezartzea.”
- “Gaur egun, *nahiz eta lan-munduan emakumeen egoera hobetu egin*, oraindik desberdintasun asko daude gizonen eta emakumeen artean.”
- “Ez bakarrik hori, baizik eta umeak bi gurasoen konpainiaz neurri berean *gozatzeko aukera behar izango luke.*”

3.4.6. Mendeko perpausak eta juntadurazkoak

Konpletiboak:

- “Beste alde batetik, ezin dugu ahaztu gizarteak mugimenduak edo ekintzak *egiten ditu* etxe-kaleratzeak gelditzeko.”
- “Hain da latza egoera, bere buruaz beste egin duten pertsonen kasuak agertu *egin direla*”
- “Argi dago bizkortasuna askotan gauza positiboaren sinonimoa

dela, ez dagoelako zertan itxaron janaria egiteari ezta norbaitek mahaira *ekar dezalari*.”

Nominalizazioak:

- “Badira hamar urte auzokoak erabaki genuela Gaztetxeko erai-kina *berriztea*.”
- “Orain dela bi aste entzun nezake telebistan, Udalak Begoñako gaztetxea botatzea nahi duela.”
- “Hots, lagunekin *gozatze*ko asko guztatzen zaigu batez ere mahaiaren alboan.”

Erlatibozkoak:

- “kale gorrian geratuko *direlaren* beldur dira.”
- “Gainera, bai hezkuntzan bai gizartean pentsamendua aldatu behar dugu, emakumeek *jasaten dute* diskriminazioa desagertzeko, nahikoa izan dugu-eta!”
- “Ez da zilegia bikote batek banantzeko erabakia hartu bezain pronto, amak edo aitak bere semea nola hazi ikusteko *aukera galdu behar duela*.”

Konparaziozkoak:

- “...entzuten denez medikuek, eguzkia guztiz biluzik hartzea *hobeago* da;”
- “Baliteke, gizonak emakumeak baino *askarrak* izatea?”
- “Ezin dezakegu diru gehiago eman gizon bati emakume bati *baina* lan berdinagatik.”

Zehar-galderak:

- “...orduak, *nola* konpon *dezakegu* egoera pentsatu behar dugu.”
- “Galdera honek argi eta garbi erakusten digu *nola* lanpostu finko batzuk *daudela* emakumentzako eta beste batzuk gizonentzako.”
- “Oso ideia ona iruditzen zait, izan ere, herritar gehienek ez dakite *zertan datza*, horregatik oso aberasgarria dela uste dut.”

Baldintzazkoak:

- “Zer erantzungo zenuke, tailer batzuk egiteko baimena eskatzen *badizut?*”
- “Zaintza ez daukan gurasoaren azalan *jartzekotan*, oso gogorra izango litzateke seme-alabaren egunerokotasunean ez egotea.”

Alborakuntzakoak:

- “Primerazko produktu hau kontsumitzean gure osasuna eta alaitasuna *ez ezik*, gure euskal sukaldaritza eta baserritarrak sustatuko genituzkeela argi eta garbi daukagu gure elkartekideok.
- “Honek, haurrengan onura handiak ekar dezake, hala nola, haurrek beraien aisialdi denbora biekin konpartitzeko aukera izatea, *bai* biak bertan elkarrekin izanda *zein* banatuta.”
- “Aldi berean, zaporeak *estandarizatzen dituzte ez ezik*, gure tokiko elikagaiak baztertzen dituzte *ere*.”

Lokailu okerrak, ezegokiak:

- “*Horrez*, kultura batzuek ez dute nudismoa inolaz ere onartzen, are gehiago, emakumeei burka eramatera behartzen diete,...”
- “*Baino*, hau ez da justizia kontua soilik, auzi ekonomikoa bada *ere*.”
- “Urte askotako erronka izan da, *hots ere* Euskal Herriko Guraso Bananduen Federaziotik ez dugu inoiz amore eman.”

Aurkaritzakoak:

- “Lan handia izan zen, *baino* auzokideen ustez oso lan ona *ere*.”
- “...poztasunez hartzen dugu Kode Zibilean eman beharreko aldatetak *baino* gure aburuz aldateta honek ez ditu gure helburuak osatuko,...”

Kontzesiboak:

- “Izan *ere*, gaur egungo gaia dela, eta egunerokoa dela *badirudi*, baina, zergatik gertatzen da?”
- “Ba, mezedez eskatzen dizuegu, *nahi eta* bakarrik gaileta pakete bat eman, laguntzen ari zarete,...”

Hautakariak:

- “Batzuk besteek baino zorte hobea izaten dute eta etxe kalera- tzea atzeratzea *edo/eta* bertan behera uztea lortzen dute.”
- “Gaur egun lan egoerak ez du laguntzen arduradun bakarra izaten, *hola* lana ezagatik *nola* txandaka lan egiteagatik.”
- “Adibidez kultura arloan, hitzaldiak *edo eta* antzerkiak horietako gehienek oso arrakasta handia izan ohi dute.”

Helburuzkoa:

- “Hasiera batean mota honetako janaria lortzeko bertara joan behar zinen *eskuratzeko*.”

- “Elikadura kultura baten erakusgarria da eta honela jarraituz gero, kate honek *erabiltzen elikatze*ko, gure kulturaren zati bat galduko dugu...”
- “Uste dugu lehenengoa askoz errazagoa dela, baina arazoaren azalpenak zuek gure bankuan *laguntze*ko bultzatzea espero dugu.”

3.4.7.
*Determinatzaileak,
izenak eta
adjektiboak*

Artikuluak:

- “*Ondorioa* orokorra, herria duen zorra mundu mailan da.”
- “Adituen arabera, legeak aldatu behar dira etxe-kaleratzeen *beherakada* bat egoteko.”
- “Nire ustez, denok gure ahotsak elkartzen baditugu, *gauz* asko aldatzeko indarrak edukiko ditugu.”

Erakusleak:

- “Azkenik, *guzti honi* buelta emateko denak elkar lagundu behar dugu.”
- “Klausula mota *haiek* itunen barruan bizi dira isilpean gure mailleguaren zenbatekoa ordaintzeari muzin egiten diogunaren arte,...”
- “Azken bolada *hontan* banaketa-kasuen “boom” -a egon da.”

Leku-izenak:

- Hasteko, “Fast Food” edo janari lasterra, *Estatu Batuetatik* eka-rritako ohitura bat da.
- “...*Ameriketan* dagoen obesitate portzentai altua izan daiteke;”

Izenak gaizki erabiliak edo sortze okerra:

- “Izan ere, zure bikotearekin bizitzen hasten zarenean, ez duzu pentsatzen *maitemindua* inoiz bukatuko denik.”
- “...banaketa bisten aurrean seme-alaben *osasuna buruketa*, kasu gehienak seme-alabengain ondorio txarrak dakarte;”

Adjektiboak:

- “Desberdintasun horiek izugarritzko *garrantzitsua* edukiko du datozen urteetan.”
- “...gure herriko gastronomiarekin elikatuz eta gure gorputza *osantona* izaten jarraituz.”

3. 5. Erroreak eta kontuan izateko zenbait irizpide

Ikusi legez, erroreak eta idazlanak bereizi ezinak dira, hizkuntzaren eten-gabeko ikaskuntzaren eta hanka-sartzeen adierazle dira-eta, idazlanik akastunenari zein jasoenari erraratuta. Alabaina, modu batean ala bestean horiek dira aztertzaileok aztertu beharrekoak; hots, izan badira errore batzuk zenbait faktoreren menpe larriagotzen ala arintzen direnak.

Ekin baino lehen, gogoan izan behar da orientagarriak baino ez direla hemen idatzirikoak. Idazlanetan aurki daitezkeen joera orokorren laburpenak liriateke, zuzentzean jitoan ez ibiltzeko, osagarri gisakoak, alegia; izan ere, ezinezkoa da modu bertsuan zuzentzea bi azterlan, ez baitira berberak testu-produkzioak, testuinguruak eta akatsak, ezta aztertzailea edota egoera ere. Hala eta guztiz ere, hainbat ohar eman beharrean gaude, eginkizunari erantzute eta hori hobetze aldera.

Lehenik eta behin, egitekoaren ezaugarrietara jo behar dugu; hau da, egoerak testua hezurtzen du, eta molde jakina izatera iradokitzen. Horren kariaz, ekoizpena baldintzatua egongo da, eta aldagaiei erreparatu beharko genieke, hala nola idazlanaren gaiari, ikasleak horrekiko duen ezagutzamailari, testu-luzerari, kalifikazio-irizpideei, ekoizpen-mailari, errore-izarrerari, interferentzia-maiztasunari eta egokitasun-mailari.

7. taula:

Erroreak idazlanetan		
Azter-alorrak	Zenbait ohar	Errore-iturburua
<i>Gaia eta horren ezagutza</i>	Oro har, ikasleari ez zaio idazgaia erabat arrotza, are gehiago, biren artean aukeratzeko hautabidea ematen zaio, ohar-iradokitzailez lagundurik; horrez gain, azterketariak baliabide linguistikoak eta ezagutza ezkondu beharko ditu idazlan txukuna egin ahal izateko.	- Gaiarekiko atxikimenduak eta ezagutzak baldintza dezake hizkuntzaren erabilera zuzena, erosotasuna eta egitekoa egoki eta zuzen betetzea.
<i>Testu-luzera</i>	Ikaslearen baliabideak tarteko, luzeagoa ala motzagoa gerta daiteke idatzia.	- Zenbat eta luzeagoa izan idatzia, orduan eta aukera handiagoa erroererako.
<i>Kalifikazio-irizpideak</i>	3. mailako idazlanek C1 mailaren langa izaki, ondorengo bost faktoreak elkarren osagarri dira, testua unitate gisa ulertu ahal izateko: koherentzia, kohesioa, egokitasuna, aberastasuna eta zuzentasuna.	- Azterketariak eskutatuko maila erakutsi behar du. Halaber, bost adierazleetatik, zuzentasuna litzateke giltzarria, gainerakoak baldintzatzen ditu-eta gehien.
<i>Ekoizpen-maila</i>	Aldea egon daiteke esalditik esaldira, idazlanetik idazlanera eta erroretik errorera, testuaren elaborazio-mailaren menpe baitaude, jasoagoa ala lausoagoa.	- Nolabait, erroreak ekoizpen-maila horren arabera baloratu beharko liriateke, ez litzatekeelako bidezkoa errore guztiak berdin sailkatzea.

<i>Errore-izaera</i>	Testuan ager daitezkeen molde ezberdineko erroreei dagozkie; beste hitzetan, "larritasun-kategoria" ezberdina izango du akats batek ala besteak.	- "Larritasun" horren araberakoak izango dira agertuko diren errore morfologikoak, sintaktikoak, morfosintaktikoak eta semantikoak; eta horien batura, aurrekoekin batera, erabakigarria.
<i>Interferentzia-maiztasuna</i>	Alde teorikoan aipatu moduan, interferentzia jakinak eta horren maiztasunak hiru esangura izan ditzake: batetik, lapsusa izatea; bestetik, hutsegitea; azkenik, desbideratze sistematikoak.	- Errorearen nolakotasunak berezko esangura du; alabaina, horren sarritasunak adieraziko digu noraino dauden sustraituak errorearen erroak.
<i>Egokitasun-maila</i>	Oro har, behatutako guztiaren balorazioa egitea, maila jakinean baloratzea.	- Aurrez azaldutako ezaugarri guztien batura litzateke; hots, produktutakoa balekoa den ala ez, eta dagokion puntuazioa.

3.6. Ondorio-bidetik

- Aurreikuspenak bete dira. Zenbat eta maila baxuagoa, orduan eta errore-kopuru handiagoa: 19'318 (0-14 artean); 14'3 (15); 8'77 (16-30 artean). Hau da, errore-maiztasuna gutxituz doa eta puntuazioak gora.
- Hala eta guztiz ere, 0 eta 14 bitarteko idazlanetan erroreak ez dira isolatuak, aise ikus litezke bi errore baino gehiagoko esaldiak, errore-mota berberak errepikatuz ala molde ezberdinekoak sartuz. Hala, deklinabidea da ezgai direnen akatsik arruntena; kopuru horretatik erdira ez dira iristen ergatiboarenak. Esan liteke deklinabide-arazoak dituztela ikasleek, baita ergatiboaren erabilera ere. Era berean, arazo esanguratsuak dituzte, ez soilik ortografian, baizik eta hitz larrien, xeheen eta esaldien osagaiak ordenatzerakoan, syntaxian, alegia. Halaber, horiei veste erroremota batzuk batu behar zaizkie, hizkuntzaren heltze-prozesuaren erakusle direnak.
- Gutxieneko maila erakutsi dutenek, gainditutakoek, deklinabide arazoak izaten jarraitzen dute; halere, era adierazgarrian gutxitzen dira ergatiboarenak. Bestalde, hitz larrien eta xeheen bereizketan dituzte arazoak, hala nola leku-izenetan, gizataldeetan, puntuazioan. Gainera, esaldi nahasiak egiten jarraitzen dute, baina ezgai direnak baino maiztasun- eta larritasun-maila txikiagoarekin.
- Gainditze-langa pasa eta handik goragokoek hitz larrien eta xeheen artekoetan eta deklinabidean dituzte arazo nabarmenenak; hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da ezgai direnak baino hiru aldiz gutxiago egiten dituztela akats horiek, oro har.

- 16 eta 30 puntuen arteko idazlanetan ohikoa izan da subjektua eta aditza moztzen duen komarik aurkitzea; seinale, pausa pro-dikoaren eta komaren erabilera zuzena ez dela guztiz menderatzen. Bide batez, esan behar da ezgaien artean ausaz erabiltzen zirela komak eta inoiz komarik gabeko errenkadak ere sortzen zirela.
- 0 eta 14 bitartekoetan ohikoak izan dira akats ortografikoak; esaterako, “h”-aren erabileran eta “s”, “x” edo “z” ezberdintzean. Arrazoiak asko izan litezke. Gabezia saiheste bidean, komenigarria litzateke euskarazko testuak maizago irakurtzea, eta ortografiaren inguruko argibideak nahiz azalpenak ematea.

4. Zenbait proposamen

4.1. Ikas-estrategiak

Lagungarria litzateke erroreak zuzenduko dituen mekanismoa barneratzea; alegia, ikas-estrategiak automatizatzea. Hala, ikasleak gai izango lirarteke beren kasa hizkuntza egokitzeko eta erroreak zuzentzeko. Honakoan, erre horiek ekidite aldera, interesgarriak izan daitezkeen zenbait argibide pedagogiko dakargu gogora. Horien artean, Oxford-ek (1990) zerrendatutakoak: **zeharkako estrategiak eta zuzenekoak**.

Zeharkako estrategiak: Ikasleak barneratu eta bere kasa erabili beharko dituenak. Irakasleak lagun diezaioke konpetentzia horiek garatze-bidean; halere, horretarako, autonomia landu beharko du ikasleak, bere kabuz horiez baliatu ahal izateko.

- Estrategia nmemonikoak: aurrezagutza eta kontzeptu berriak ahalik eta azkarren eta egokien egokitzea, testuinguratzea. Hori dela bide, honakoak izan daitezke baliagarriak: irudiak eta soinuak eranstea, ikasitakoa errepatatzea eta gorputzez laguntzea.
- Estrategia kognitiboak: hizkuntzaren erabilera eta modelatzea erraztuko duten azturak sortzea, elearen mezuak ekoizteko nahiz ulertzeko lagungarri izango direnak, jatorri deduktibokoak nahiz induktibokoak.
- Estrategia orekatzaileak: Norberaren mugen ezagun, helburu komunikatiboa betetzea, hutsune horiek gaindituz ala ekidituz.

Zuzeneko estrategiak:

- Estrategia metakognitiboak: ikasleak bere ikaskuntza-ibilbidea kontrolatu eta horri ekiteko bideak eta formulak ahalbidetzea, hala nola lana antolatzea, helburuak finkatzea, autokontrolatzea, autoebaluatzea.
- Estrategia afektiboak: ikaskuntza oztopa dezaketenak gainditzea; adibidez, antsietatea aienatzea, automotibazioan oinarritzea, egoerara egokitzea, emozionalki zuzen eta modu orekatuan erantzutea.

- Estrategia sozialak: ikaskideekin hartu-emanak izatea, galdera-erantzunak egitea, kooperatzea eta enpatizatzea.

Era berean, aipatu beharra dago estrategiok ohar orokor moduan har ginitzakeela; izan ere, gaude horiek indartuz erroreak zuzen daitezkeela, asko eta asko autoikaskuntzaren eta aurrez aipatutako estrategia horiekin her-tsiki lotuak baitaude.

4.2. Okerrak zuzentzeko teknikak

Irakasleek lan handia egiten dute etenik gabeko erroreak moldatzen eta zuzentzen, ekinean, horiek errotu eta fosildu ez daitezen. Irakaslearen lana zuzentzea eta ikaskuntzan gidatzea izaki, zeintzuk dira, bada, idazlanetan zuzen ditzakeen erroreak? Hamaika argibide dago horren inguruan, eta ziur irakasle esperientziadunek eta argiek izan badutela berea. Honakoak eza-gutza biribiltzea helburu duenez, Cassanyren (1993) ondorengo 10 aholkuak ezin genitzake albo batera utzi, idazmenaren zuzenketan esanguratsuak bezain lagungarriak baitira:

1. Zuzen ezazu soilik ikasleak ikas dezakeena; hots, ez ezazu erronka kognitiboa ezinezko bihurtu edota ezinegon-iturri.
2. Zuzen ezazu ikaslea idatzitakoaz oroitzen denean, ez larregi itxaron.
3. Ahal izatekotan, azken testuaren aurreko idatzaldiak zuzendu, eta horiek elkarren artean erkatu.
4. Ez ezazu dena zuzendu, gehiegi izan daiteke-eta. Dosifikatu eta mailakatu.
5. Jarraibide zehatzak eta praktikoak eman.
6. Klasean daudela, emaezu denbora, ikasleek irakur ditzaten zure oharrak eta zuzenketak.
7. Hitz egin ezazu ikasle bakoitzarekin, ikastaldean edota bakarka.
8. Emaizkiozu ikasleari autozuzenketarako lanabesak: hiztegiak, gramatika-liburuak, literatura-liburuak, hainbat webguneren estekak, etab.
9. Lehena, zuzenketa-kalitatea; gerokoa, kantitatea.
10. Bihurtu zuzenketa baliabide didaktiko.

Mailaren arabera, irakasleak erabakiko du zein diren zuzendu beharreko erroreak. Era berean, zuzenketa bezain garrantzitsua izan liteke erreparatzea ez soilik alderdi negatiboari —erroreari berari—, baizik eta baita alderdi positiboari ere, eta, ondorioz, saritzea gainditu berri dituztenak eta txalotzea gustuko esaldiak. Indartze positibo hori bikaina suerta dakiokoe ikasleari, etengabeko zuzenketak jasanezinak gerta baitaitezke; izan ere, ikasle motibatuak nahi ditugu, eginiko zuzenketei gogotsu ekingo dietenak.

Era berean, lagungarri suerta liteke irakasleak zuzenketa-kodea izatea, berau erabiltzea zuzenketarako eta ikasleekin elkarbanatzea. Horren arabera zuzenduz gero idatziak, ikasleek beren hutsegiteak iker ditzakete, eta ego-kiago ulertu non egin dituzten eta zein bide egin behar duten horiek zuzentzeko; halaber, beste estrategiabat izango litzateke ikasleen artean ausaz banatzea idazlanak eta horiek elkarri zuzentzea.

Jakin badakigu irakas-teknika ugari darabiltzatela euskara-irakasleek; hala eta guztiz ere, honako ikerketa-lanaren hondarretan, horietako batzuk ekarriko ditugu gogora, hainbat akats zuzentzeko bide eman dezakete-eta. Ondorengo zerrenda osatu dugu Larrearen (2009), Cassany-ren (2006), Grymonprezi-ren (2004) eta Walzi-ren (1985) ekarpenak batuz:

1. **Portfolioak** sortu ikasle bakoitzak eginiko idazlanekin.
2. **Egunerokoa** sortu ikasi berriak diren hitzekin nahiz esamoldeekin.
3. Idazlan akastuna berrikusi, zuzendu eta **berridatzi**.
4. **Euskararen zuzentasun-softwarea** erabili, hala nola XUXEN, itzultzaileak, sare-hiztegiak, gramatika-webguneak.
5. Ikastaldeak **ikasturteko bloga** diseinatzea, eta bertan idazlanak, berriak, jakingarriak, ebaluazioak, zalantzak, eztabaidak eta bes-telakoak azaltzea.
6. “**Eguneko errorea**” eskoletan landu, azalpenak, argibideak eta konponbideak eman.
7. Ikasleek ezin badiote errore jakinari aurrerabidea eman, **irakasleak lanabesak ematea**, harik eta ikasleek horri ekiteko nahikoa izan arte.
8. Elkarri zuzendu ostean, berriz ere idazlan zuzenduak batu, eta ausaz birbanatu **beste zuzenketa bat** egin ahal izateko elkarri.
9. **Ikastaldean eginiko zuzenketa**. Guztiek idazlan bera zuzentzea batera orri-formatuan, proiektorean, arbel digitaletan nahiz ohiko arbelean.
10. Talde txikietan idatziari nola helduko dioten **negoziatzea**; idaz-lana zuzendu ostean, horren **balorazioa** egitea.
11. Testu-genero edota gai bakoitzeko, **klaseko idazlan zuzenduen bilduma** egitea.
12. **Ikaskideen nahiz norberaren hutsegiteen bilduma** egitea eta horren bertsio zuzena jartzea ondoan.
13. Ikastaldeari barneratzen zailenak zaizkion **arauak eta formak biltzea**.
14. Ikasleekin **zer zuzendu** eta **zuzenketa-bideak** negoziatzea.

15. **Kontrol-zerrenden** antolaketa eta erabilera.
16. Ikasleen beharrianetara egokitua eta euskara ez den beste ele baten testua ekarri eta horren **itzulpena** egitea.
17. Ikasleak eta irakasleak adostutako **gai baten bilketa eta sintesi-lana**.
18. **Euskarazko hainbat testu** ekarri, aldrebestuak ala ez, eta horiek **birformulatzea**.
19. **Idazketa-tailerrak** lantzea, talde txikian, handian eta zenbait iturri ustiatuz: literatura, hedabideak, lagunartekoa, administrazioa, akademikoa, etab.

4.3. Etorkizunari begira

Itsasoa bezain mugagabea dugu zuzentasunaren gaia, ikertzeke oraindik, luze, sakon eta zabal. Bilatze-lan amaigabe horretan, interesgarria litzateke jarraipena ematea. Horren lekuko dugu Naroa Perezek HABEren bigarren mailari buruz eginiko ikerketa. Hortaz, emankorra izan daiteke gainerako mailak aztertzea. Era berean, gogoan izan behar dugu lanak idazlanen soilik zuzentasuna duela ikergai; horrenbestez, komenigarria izan liteke 3. mailako idazlanen gainerako kalifikazio-irizpideak behatzea eta ahozkoari ere erreparatzea.

Urtero azterketa-deialdietara aurkezten den ikasle-saldoari men eginez gero, txikia da eskuarteko lagina; baina ez hutsala. Bildutako 132 azterketa-laginak puntuazioaren arabera sailkatu ditugu, eta irizpide horren arabera ikeritu. Etorkizunari begira, emankorra izan daiteke beste ezaugarri batzuk ere ikertzea; esate baterako, azterketari bakoitzaren produkzioa analizatu, adinaren arabera, euskara H1, H2 edo H3 duen, edota ikasketa-mailari erreparatuz. Proposamen-mailan utziko ditugu, oraingoz behintzat.

Bibliografia

- Cassany, D. (1993). *Reparar la escritura. Didáctica de la corrección de lo escrito*. Barcelona: Graó.
- Cassany, D. (2006). *Taller de textos, leer, escribir y comentar en el aula*. Barcelona: Síntesis.
- Gartziarena, M. (2015). Egiaztatze-probak: zuzentasunaren azterketa 3. mailako idazlanetan. [Master-tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Larrea, K. (2009). Ikasleen hizkuntza erroreak eta hutsegiteak: zuzentzeko proposamena. *Revista de Psicodidáctica*, 14(1), 63-78.
- Oxford, R. L. (1990). *Language learning strategies: What every teacher should know*. New York: Newbury House.
- Perez, N. (2014). Erroreen analisisa, HABEren 2. mailaren azterketetan. *Hizpide*, 84, 3-23.